

LEHEN ZIKLOA. AHOZKO HIZKUNTZAREN PROGRAMAZIOA

HELBURU OROKORRAK

- Gela barrenean izaten diren egoeretan irakasleak nahiz beste ikasleek erabiltzen duten hizkuntza ulertzeko gauza izatea.
- Gela barrenean ikasleekin nahiz irakasleekin hitz egiteko aurkezten zaizkien egoeretara egokituz, esapide zuzenak erabiliz solaskideak ulertzeko moduan mintzatzeko gauza izatea.
- Lantzen diren testu motak ulertzeko eta ekoizteko gai izatea.
- Ahozko komunikazioa bideratzeko jarrera eta ohiturak garatzen joatea.
- Gelaz kanpoko beste espazioetan (sarrera-irteeretan, jolastokietan...) pertsona nagusi nahiz kideekin, egoeraren arabera, euskara formala edo informala erabiltzeko ohitura garatzen joatea.
- Euskal folklorearekin edo ohiturekin loturiko abestiak eta leloak ikastea eta baloratzea.

TESTU MOTAK

Lehenik eta behin, bi testu mota bereiziko ditugu, hots, elkarrizketak eta bakarrizketak.

Zikloa hastean, ikasle bakoitzari zinta huts bat ematea proposatzen dugu. Zinta horretan zikloan zehar landuko diren ahozko testuak grabatuko dira. Beraz, testu bakoitza lantzerakoan, azken xedea grabaketa izanen da. Modu horretan, ikasle bakoitzaren prozesua erregistratua izanen dugu.

Elkarrizketak, jakina, beti solasaldietan txertatuko ditugu. Astelehenetako bizipenetan zein inguruneko gaien hurbilketa saioetan, zein edozein azalpenetan.

Esamolde batzuk sailkatu eta bakoitza denboraldi batez egoera horietan sartzen eta erabiltzen ahaleginduko gara.

BAKARRIZKETAK

Lehen zikloan zehar testu hauek landuko dira:

1. MAILA	2. MAILA
Bizipenak (kurtso osoan zehar astelehen goizetan)	Bizipenak (Kurtso osoan zehar astelehen goizetan)
Jolasak (irailean zehar)	Jolasak (irailean zehar).
Errezeta (irinetik ogira gaiarekin).	Errezeta (Esnekien gaiarekin).
Ipuina (inauteriekin)	Ipuina (Inauteriekin).
Antzerkia (kurtso osoan zehar).	Antzerkia (kurtso osoan zehar).
Nola egiten den (landareen gaiarekin).	Nola egiten den (Birziklatzearekin).
Liburu baten aurkezpena	Definizioak.
	Berriak (Irrati saioaren inguruan).
	Liburu baten aurkezpena

BIZIPENAK

Bizipenak bakarrizketen artean kokatu baditugu ere, elkarrizketarekin batera landuko dira.

Bizipenak ezin dira gehiegi zuzendu, naturaltasunez eta askatasunez adieraziko baitira. Hala ere, hauetan ere gure eskua sartzen saiatuko gara, gero eta aberatsagoak eta zuzenagoak izan daitezen.

Sartu beharreko esamoldeak:

Atzo	Hasieran
Herenegun	Ondoren
Larunbatean	Bukaeran
Igandean, berriz,...	Azkenik
Goizean	...
Arratsaldean	

Beti ere gure interbentzioa oso astuna izan gabe. Ikasleen naturaltasuna bultzatuz.

JOLASAK

Unitate honen helburua zenbait egitura ez formalen barneratzea izanen da.

Ohikoenak aukeratuko ditugu:

- Ariko al gara?
- Zertan ariko gara?
- Aritzen ahal naiz? Zuekin aritzen ahal naiz?
- Txarra. Huts egin duzu. Kale egin duzu. Kale.
- Zotz egingen dugu.

Ikasleei ikasturtean zehar aritzeko jolasak ikastea proposatuko zaie.

Jolas arruntenak edo ezagunenak erabiliko ditugu:

- § Ezkutaketan.
- § Harrapaketa, armiarma, katea, stop...
- § Kaka, kaka, txoriaren kaka.
- § Poli eta kako
- § ...

Denboralizazioa:

Kurtso hasieran egitea aholkatzen dugu. Ingurunean, aldi berean, gela eta ikaskideak landuko ditugu. Talde giroa lantzeko ere egokia izan daiteke.

IPUINA

Ipuina, berez, kurtso osoan zehar landuko dugu *Ipuin tailerra* deitutako liburua erabiliz. Hala ere, bereiziki ipuina ahoz lantzeko inauterien gaia probestuko dugu. Inauterietan mozorroekin pertsonaiak asmatzen ditugu. Pertsonaia hauekin ipuin motzak sortuko ditugu.

Hasieran, eredu bat emanen zaie. Erreferentzi gisa marrazkiak erabiliko ditugu. Lauzpabost marrazki izan daitezke:

1. marrazkia _____ Pertsonaia edo pertsonaiak.
2. marrazkia _____ Lekua.
3. marrazkia _____ Gertakizuna.
4. marrazkia _____ Nola amaitzen den.

Marrazki hauetaz baliatuko gara ipuina kontatzeko. Era berean, oso argi zehaztuko dute ipuinaren egitura.

§ Pertsonaiaren aurkezpena eta deskripzioa.

§ Kokapen arrunta.

§ Gertakizun berezia.

§ Amaiera.

SEKUENTZIA DIDAKTIKOAK:

1. saioa:

- a- Ikasleei inauterietako mozorroekin ipuinak asmatzea proposatuko zaie. Denon artean pertsonaia pila bat asmatuko dugu.
- b- Ipuin txiki bat aurkeztuko zaie. Marrazkien laguntzaz ipuintxo bat kontatuko dugu. Ipuinaren inguruan solastatuko gara. Marrazkiak komentatuz, behin baino gehiagotan kontatzen saiatuko gara. Ikasleei ere kontatzeko eskatuko zaie.
- c- Ipuinaren egituraz jabetuko gara. Marrazkiek ere eskema bera jarraitzen dutela ikusiko dugu.
- d- Azkenik, bakoitzak bere pertsonaia aukeratu eta ipuintxo bat asma dezaten eskatuko zaie. Hurrengo saiorako, ahal bada, pentsatuta ekartzeko eskatuko zaie.

2. saioa:

- a- Ikasleak bere ipuinaren marrazkiak egiten hasiko dira. Hau aktibitate luze xamarra izan daiteke eta bitartean ikasleak banan-banan bere ipuina kontatzen ahal dute. Hasierako kontakizunean zuzenketak eta proposamenak eginen dizkiegu. Aktibitate honek ziur asko bi saio edo gehiago beharko du.

3. saioa:

- a- Ikasle bakoitzak bere marrazkien laguntzaz bere ipuintxoa kontatuko du. Kontakizuna, printzipioz, ikaskideei zuzendutakoa izanen da. Aldi berean grabatuko da. Aktibitate hau ere luzea izan daiteke, ikasle kopuruaren arabera beti ere.
- b- Posible izanez gero, ekintza hau beste entzule batzuekin errepikatzen ahal da.

EDUKIAK:

Kontzeptuak:

-Hasiera motak:

- Behin batean
- Bazan behin
- Duela urte bat
- Aspaldiko garai batean
- ...

-Bukaera motak:

- Eta horrela.....
- Azkenean denak...
- Eta hala bazan ez bazan...
- ... eta hagitx ongi bizi izan ziren.

-Lokairuak:

- Handik gutxira
- Ondoren
- Geroxeago
- Egun batzuk pasata...
- Zoritxarreko egun batean
- Zorioneko egun batean
- Egun batean
- Hala ere
- Hori zela eta
- Halako batean
- Gutxien espero zuenean
- Hurrengo egunean

LIBURUAREN AZALPENA

Ikasleek astero - astero liburutegiko liburu bat etxera eramaten dute. Astean behin saio batean liburutegira joaten gara aurreko liburua itzuli eta beste bat aukeratzera. Saio honetan etxean irakurri duten liburuaren azalpena egin behar dute.

Helburu hauek izanen ditugu:

- Liburutegian dinamika atsegin eta motibagarria lortzea.
- Astero liburuarekiko ardura hori betetzea.
- Pixkanaka denen libururik gustukoenak ezagutzea.
- Besteen aitzinean lasaitasunez aritzea.
- Ozen eta argi solastatzea, ongi ahoskatuz.
- Egitura batzuk lantzea:
 - Liburu honen izenburua.
 - Niri asko gustatu zait eta horregatik irakurtzea aholkatuko nizueke.
 - Liburu hau hartzera aholkatu nahi dizuet oso polita delako.
 - Liburu hau irakurtzea gomendatzen dizuet oso dibertigarria baita.
 - Niri gehien gustatu zaidan marrazkia hau da.
 - Nire marrazkirik gustukoena hau da.
- Liburutik esaldi bat edo zatitxo bat ozenki irakurtzeko etxean prestatzea.
- Besteentzat ozenki irakurtzea.

Sekuentzializazioa:

Liburutegiko saioan, liburua itzuli baino lehen, borobilean eseriko gara eta banaka bakoitzak bere liburuaren aurkezpena egingen du. Mahaiburutik edo erabakitako lekutik banan - banan pasako dira.

Eskema hau jarraitu behar dute:

- Liburuaren izenburua aipatu eta tapakia erakutsi.
- Liburuari buruzko iritzia eman.
- Marrazkirik gogokoena besteei erakutsi.
- Aukeratu duen esaldia edo zatia besteei irakurri. Lehenengo mailan hau egiten Gabonak pasatutakoan hasiko gara.

ERREZETA

Errezeta lehen zikloko bi mailetan lantzea proposatzen dugu. Bietan inguruneko gai batean txertaturik. 1. mailan, "Irinetik ogira" gaiarekin eta 2. mailan, berriz, "Esnekiak" gaiarekin.

Hala ere, lehenengo mailan sakonago landuko dugu eta bigarren mailan errebaso gisa planteatuko da.

Helburu hauek izanen ditugu:

- Gelako guztien aitzinean solastatzen trebatzea.
- Besteek ulertzeko moduan egitea: ozen, argi eta zuzen.
- Begirada entzuleei, oro har, zuzentzen ikastea.
- Ahalik eta hiztegi egokiena erabiltzen saiatzea.
- Entzule gisa, adi eta begirunez jokatzeko.
- Besteen balorapena egiten ikastea.
- Eta, jakina, errezeta baten helburu espezifikoak jorratzea.
 - Hasieran, bere burua aurkeztearekin batera, zer esan behar duen ere azaltzea, honelako egiturak landuz:
 - Gaur ...-ren errezeta azalduko dizuet.
 - ... nola egiten den esango dizuet.
 - ...nola egin behar den erakutsiko dizuet.
 - Osagaiak eta eman beharreko urratsak ongi bereiztea.
 - Beharko ditugun osagaiak hauek dira: ...
 - Osagai hauek behar dira: ...
 - Horrela egin behar da...
 - Hauek dira eman beharreko urratsak...
 - Urratsak azaltzean honelako esamoldeak erabiltzea:
 - Lehenik eta behin
 - Lehenengo
 - Ondoren
 - Gero
 - Jarraian
 - Hori bukatuta
 -
 - Azkenik

Honelako sekuentzializazioa jarraituko dugu:

Kontuan hartuko dugu inguruneke gaiarekin ogiaren errezeta landu dugula. Ogia nola egiten den ikusi dugu, ogia egin dugu, errezeta irakurri dugu...

Egoera honetan kokaturik, honelako sekuentzia didaktikoak egingo ditugu:

1.- Ikasleei errezeta bat prestatu behar dutela esango diegu. Errezetak erraza eta sinplea izan behar du, beraiek ongi gogoratzeko eta besteen aitzinean azaltzeko. Etxean gurasoei laguntza eskatu eta aldez aurretik prestatu behar duten. Dena ahoz. Azalpen hau egiteko saio erdi bat erabiliko dugu. Lana noizko prestatu behar duten zehaztuko diegu.

2.- Errezeten aurkezpena: bideo kameraz grabatuko ditugu aurkezpen guztiak, beraz, kamera prest eduki beharko dugu. Hasi baino lehen, aurkezpena nola egin behar den komentatuko dugu, baita kontuan hartu beharreko beste batzuk ere, hala nola, begirada, ahotsaren bolumena, ahoskapena, e.a. Urratsak azaltzerakoan erabili daitezken lokailuak arbelean idatziko ditugu.

Entzuleei ere hori guztia kontuan hartzeko eskatuko zaie, ondoren balorapena egin ahal izateko.

Orduan prest izanen gara aurkezpenekin hasteko. Hizlaria irakasleen mahaian eseriko da eta kamerarekin grabatuko dugu.

Aurkezpen bakoitzaren ondotik, balorapen txiki bat egingen dute ikasle batzuek. Sekuentzia hau egiteko bi edo hiru saio beharko dira, ikasle kopuruaren arabera.

3.- Bideoan grabatutakoak ikusiko ditugu. Honekin batera, lehen egindako balorapena berriro ere gogoratuko dugu. Ikasle bakoitzak berea kontuan hartu beharko du, bigarren saiakeran ahal dena hobetzeko. Bigarren saiakerarako berriro ere etxean pixkatxo bat entrenatu behar dutela esango zaie eta noiz izango den ere zehaztuko dugu. Sekuentzia honetarako saio bat edo bi beharko dira.

4.- Bigarren saiakera lehenengoa bezala egingen dugu. Bat-banaka eta kameraz grabatuta. Oraingo honetan ez dugu balorapenik egingo momentuan.

5.- Azken sekuentzia bi grabazioak alderatzea izanen da. Lehen eta bigarren saiakerak jarraian ikusi ondoren ikasleak zertan hobetu duen baloratuko da. Honetarako ere saio bat edo bi beharko dira.

Ebaluaketa:

Beti bezala, ebaluaketa egiteko ikasle bakoitzaren maila eta gaitasuna kontuan hartuko ditugu. Ezarri ditugun helburuen arabera ebaluatuko dugu:

- § Zein jarrerarekin aritu den: lasai, oso behartua, urduri, axolagabe, arduratsu...
- § Begirada behar bezala mantendu duen.
- § Ozen eta argi mintzatu den.
- § Hiztegi egokia erabili duen.
- § Errezeta ongi ulertu den.
- § Prestatzen egin duen ahalegina.
- § Entzule gisa adeitsu jokatu duen.
- § Balorazioetan parte hartu duen.

Sekuentzializazio hau, esan bezala, lehenengo mailarako proposatzen da. Bigarren mailan, errepasso gisa, esnekien gaiarekin lantzen diren errezetak ere ahoz lantzen ahal dira. Ez da beharrezkoa sekuentzializazio bera jarraitzea. Idatziz landutako errezetak probestuko ditugu eta ahoz ere azalduko dituzte. Idatzitakoa memorizatu eta ahoz azaltzeko eskatuz.

Honetarako, ikasle kopuruaren arabera betiere, aski izanen dira saio bat edo bi.

Kasu honetan, helburu berdinak eta ebaluatzeko irizpide berdinak izanen ditugu.

ELKARRIZKETAK

Unitate bakoitza bizpahiru astez landuko da, ikasleei beraien bizipenak eta gora -beherak aipatzeko eskaintzen zaizkien uneetan.

Prozedurak, jarrerak, materiala eta ebaluaketen maiztasuna U.D.ak garatuta dauden orrialdetan zehaztuta daude.

1. BAIMENAK ESKATZEA
2. AGINDUAK EMATEA
3. HIPOTESIAK EGITEA. BALDINTZA ERREALA.
4. BESTE NORBAITEK ERRANDAKOA TRANSMITITZEA.
5. ZALANTZAK ADIERAZTEA.
6. AHALTASUNA. EZINTASUNA.
7. EZER ERE EZ. INOR ERE EZ.
8. ERRONKA ADIERAZTEA.
9. BERRESPENA BILATZEA.
10. ERE, ERE BAI, ERE EZ. / BAITA ERE, EZTA ERE.
11. HARRIDURA ADIERAZTEA.

Elkarrizketak

-Hiztun baten baino gehiagoren artean erabilitako komunikazio egoera-

EDUKIAK

KONTZEPTUAK	PROZEDURAK ULERMENA ADIERAZPENA	JARRERAK
- Esaldia - Hitza	Sekuentzia didaktikoa: -Ikasleek zer dakiten behatu. -Eredua eman eta esapideak buruz ikasarazi. -Ekoizpen egoera eskaini: inguruko eta gelako errealitateari egokitutako testua lantzeko proposamen zehatza planteatu	Taldean hitz egiteko arauak errespetatzeko ohitura: - Elkarri entzun. - Taldean hitza eskatu. - Banaka solastatu. - Gaiari egokitu. Ikaskide nahiz irakasleekin euskaraz solastatzeko ohitura.

-Edukiak aukeratzeko honako irizpide hauek hartu dira kontuan:

Ikasleei gelako komunikaziorako beharrezko gertatuko zaizkien egoerak izatea eta gazteleraren interferentziak zuzentzeko egoerak aintzat hartzea.

-Kontzeptuak formalizazio kolokialean aurkeztu.